

LARRIALDIETAKO PROZEDURAK

Larrialdiren bat gertatzekotan, izaera orokorrarekin, erantzuna berehalakoa izan behar du PAS protokoloaren arabera (Babestu, Abisatu eta Lagundu).

Oro har gomendatutako jarraibideak hurrengoak izango dira:

1. Barealdia mantenduz zauritua babestea. Posiblea bada, hura inoiz ez bakarrik uztea.
2. Egoera ebaluatuko dugu, histeria-egoerak saihesten eta kontrolatzen saiatuz
3. Gainerako taldekideak segurua den lekuraino gidatuko ditugu.
4. Lesioen larritasunaren arabera jokatu
 - LESIO ARINA** izatekotan, jardueraren arduradunari ohartaraziko diogu eta laguntza-puntu baten gertutasuna edo ihes-toki baten hurbiltasuna ebaluatuko da, lehen laguntzak behar izanez gero soilik emanez,.
 - LESIO LARRIAK** izatekotan, 112arekin harremanetan jartzen saiatu gertatutakoaren gainean zehaztasunez informatuz, lokalizazioa ahalik zehatzena emanez, istripua izan duten pertsonen kopurua aipatuz, lekuko baldintza meteorologikoak eta kontaktu-telefonoak emanez.
5. Istripua izan duenari lagundu:
 - Lesio larriak egotekotan, manta-termikoaz estali bero-galera saihesteko larrialdi-taldeak iritsi arte
 - Kontzientziarik gabe egotekotan arnasketa eta pultsua egiaztatu. Arnasa falta bazaio, arnasketa artifiziala egiteari ekin arnasbideak garbi dituela ziurtatuz,. Pultsu-galeraren aurrean masaje kardiakoa egin. Arnasa eta pultsua falta bazaio RCP-a (Kardio Birika-Suspertzea) ekin.

